

GIL 6 Adarra mendiko Buntsandstein sedimentuzko mendi-gailur diaklasatuak eta bloke-erorketa



Besabi auzotik ikusten dira Buntsandsteineko gailurrak. Urrunetik, geruzen inklinazioak eraturako malda-erliebea ikusten da. Eroritako bloke handiak ere ikusten dira.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 12' 52.11" N
Long.: 1° 57' 46.97" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 584.236,65 m
Y: 4.784.290,40 m



Nola iritsi

Andoain eta Urnieta arteko gairean, bi udalerriak lotzen dituen GI-131 errepidean, hartu SE-ranzko desbideratzea, Besabi auzorantz doana. Hara iritsitakoan, utzi autoa, eta igo mendira seinaleztatutako mendi-bidetik.



Goranzko bidean, Paleozoikoko arbelen azaleramenduak aurkitu daitezke.



Konglomeratuen adibiderik onenak eroritako blokeetan ikusten dira. Kuartzozko ertz biribilduak ikusten dira, ez oso orientatuak eta pikor-sailkapen oso txikikoak.

GILaren deskribapen laburra

Ziurrenik, EAEko Buntsandstein faziesen azaleramendurik onena izango da (Behe Triasi-koa). Buntsandsteinaren sekuentzia alubioi-konoen sistema batean eraturiko 400 metro hareharri eta konglomeratu gorritz osaturik dago; seriean aurrera egin ahala, gero eta distalagoa da, eta pikor finagoko arroka osatua dago.

Kasu honetan, sekuentziaren behealdea ikusten dugu; 50 bat metro lodiko pakete bat, Paleozoikoko arbelen gainean zuzenean, konglomeratu eta hareharri gorritz eraturik. Estratuek N140°E orientazioa dute, gutxi gorabehera, eta 40° okertuta daude SW-rantz. Gogorragoa denez, Buntsandstein sedimentuzkoak dira Adarra mendiko gailur eskualde oso ikusgaiak, eta maldako erliebe klasiko osatzen dute.

Konglomeratuak beheko zatian daude, eta presio-disoluzio aztarnak dituzten kuartzozko ertzez osaturik daude; ez dute orientazio lehenetsi oso markaturik, eta pikor-sailkapen nahiko txikia dute. Hareharriak ere nahiko kuartzitikoak dira, lodiera metrikotik dezimetrikora bitarteko estratuetan daude, eta eratu ziren ingurune alubialari dagozkion barne-xafladura paralelo eta gurutzatuak dituzte.

Formazioari diaklasa bertikalen bi sistemak eragiten diote: nagusia bata, N60°E norabidekoa, eta ez hain nabarmena bestea, N160°E norabidekoa; arroka-multzoaren higadura markatzen dute biek, pinakuluak eta blokeak bereiziz, zeinak gero mendi-mazelan behera erortzen baitira, zenbait metro kubikoko unitate handi eta morfologikoki errektangularrak. Gailurraren azpian dagoen bloke erorien eremua gailurren higadura-, lurjausi- eta atzerapen-mota horren EAEko adibiderik onenetako bat da.



Gailurraren gehiena osatzen duten hareharri gorriek barne-xafladura nahiko ikusgarriak dituzte. Argazkian, estratifikazioaren okerdura ere ikusten da, SW-ranzko joera garbia duena.

N60°E norabideko diaklasa bertikalak oso nabarmenak dira paisaian; pinakulu txiki eta handiak bereizten dituzte, eta, gero gailurretik behera erortzen dira haiek.

Behatzeko punturik onena

In situ

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:**
- **Gaiari dagokionez:** GIL 5, GIL 107, GIL 108, GIL 109, GIL 110, GIL 113.



Eroritako blokeen eremua; dimentsio metrikokoak eta morfologia errektangularrekoak dira blokeak, eta diaklasen orientazioak kontrolatzen ditu. Baso handi batzuk zer urruti dauden ikusita, esan daiteke gailurraren atzeraldia nahiko aktiboa dela, eta areagotu egiten duela, gainera, mendi-mazela osatzen duten Paleozoikoko arbelen erresistentzia txikiak.

Valoración del LIG

| Balorazioa | | Baxua | Ertaina | Altua | Oso altua |
|--|--|-------|-----------|-------------|-----------|
| Interes zientifikoa | Geomorfologikoa | | | | ● |
| | Hidrogeologikoa | | | | |
| | Tektoniko/Estrukturala | | ● | | |
| | Estratigrafikoa | | | ● | |
| | Paleontologikoa | | | | |
| | Petrologikoa | | | | |
| | Mineral-hobiak | | | | |
| | Beste batzuk | | | | |
| Interes ekonomikoa (erauzketa) | | | Iraganean | Potentziala | Martxan |
| Interes kulturala: Jende gehien erakartzen duten Gipuzkoako mendietako bat da; Andoain, Urnieta, Hernani eta Donostialdeko mendizaleak inguratzen dira gehienbat. | | | | | |
| Oharrak: | EAEen urriak dira Buntsandstein azalaramenduak, eta horregatik du interes stratigrafikoa, funtsean. Bestalde, agerikoa da eroritako blokeen eta diaklasaren interes geomorfologikoa. | | | | |

Bibliografia espezifikoa:

- MAGNA, 64. zk.
- EVE 64-IV zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121 or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. (2008ko berrargitalpena; 1997an mikrofitxatan argitaratua). *El Manto de los Mármoles (Pirineo Occidental): Geología Estructural y Evolución Geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo. 294 or. (1 CD). ISBN: 978-84-9860-178-7.